

## **Koordinatzaileei elkarrizketa:**

### **1. Datu orokor batzuk: enpresa zein den, noiztik dago martxan Euskara Plana, noiztik zara koordinatzaile, ...**

Fagor Etxetresna Elektrikoak eta Edesak Etxetresna Elektrikoen Elkarte (Agrupazioa) osatzen dute. 1998an ekin zion lehen negozioak, Egosketak, Euskara Planari. 2000n Euskara Planen koordinaziorako lankide bat liberatzeko erabakia hartu zen. Ordudanik, urte hartako maiatzaren 2tik, dihardut honetan, dedikazio osoz eta liberatuta.

### **2. Euskararen nolako erabilera irudikatzen duzu zure lantegian 10 urte barru?**

Gaur egungoa baino zabal eta orekatuagoa. Euskara lan hizkuntza izango da arlo gehiagotan eta langile gehiagorentzat.

### **3. Planak dituen kanpo babesak (dirulaguntzak, agiriak...) nahikoak iruditzen al zaizkizu? Zer behar da?**

Konformatzen jakin behar da konformista izan gabe. Dugunarekin asko egin daiteke. Dirulaguntzak hobetuta, gehiago eta lehenago.

Administrazioak, bestalde, lan handia du egiteko Euskara Planen garrantzia gizarteratzen eta gure ekimenari prestigioa ematen.

### **4. Eta barruko babesak? Zer falta da?**

Euskara Planek ez zuketean egin duten ibilbidea egin izango babes makala izan balute. Jende askoren babes eta laguntzatik elikatzen gara.

Euskara Planen alde egitea gizarte justu eta hobeago baten alde egitea dela sinistu eta sinistarazi behar dugu. Eta hobetze horretan parte hartzeak baduela ahaleginetik beste gozamenetik.

### **5. Zergatik koordinatzaile? Zerk bultzatu zintuen Euskara Planeko lanetan konprometitzera?**

Lana bera erronka interesgarria da. Hezteko eta trebatzeko aukera eskaintzen du eta baita lankide askorekin harremanak izatekoa ere; horrek behintzat erakargarri egiten du koordinatzaile lana.

### **6. Zer nolako profila izan beharko luke koordinatzaileak bere lana egoki betetzeko? Profila esaten dugunean, formazioaz ari gara, pertsonaren dohainez ari gara, trebetasunez eta gaitasunez ari gara.**

Euskara lan-hizkuntza osoa bilatzeko gogoia ezinbestekoa da. Koordinatzaileak eredugarria izan behar du (ez akatsgabea!), egiten duenaz konbentziturik egon behar du eta hori gainontzeko lankideei transmititzen jakin behar du. Unean uneko soluzioak edo adostasunak bilatzen trebea izateak ere laguntzen du. Optimismoa eta umorea ere behar dira, dosi egokian.

### **7. Zer eman dizu koordinatzaile izateak? Zer ekarpen egin dizu postuak? Eta zerbait kendu al dizu?**

Nire idearioa aberasteko aukera eman dit eta baita kooperatibari ekarpen on bat egiten diodala gertutik sentitzekoa ere. Lankide askorekin elkarlana partekatzeak aukera ere izan dut; ederra da. Zerbait kentzekotan astia kentzen didala esango nuke.

### **8. Zer zailtasun dituzu zure koordinatzaile lana aurrera eramateko? Zer falta zaizu?**

Liberatuta nagoen partetik ez dut dedikazio arazorik edota koordinazioa bestelako lanekin bateratu beharrak sortu ohi duen arazorik. Zailtasunak euskararen egoerari lotutakoak dira, euskararen normalizazioan diharduen edonork aurkituko dituen eragozpenak, alegia. Bat aipatzearen, diskurtsoen eta praktikaren artean dagoen aldea.

Faltan baino soberan direla esango dut: oraindik hor dirauten konplexu batzuk, erosokeriak eta faltsukeriak.

**9. Koordinatzaile kargua hartu zenuenean, espero al zenuen egin beharreko lana horrela izango zela? Zerk harritu zaitu gehien?**

Aitortzen dut hasi berritan proiektu hau azkarrago joango zela pentsatzen nuela.

Harritu nau ezagutzeak euskararen inguruan zenbat istorio, historia eta bizipen desberdin biltzen ditugun gure lantegian.

**10. Beste zerbait esan nahiko bazenu .....**

Lankide batek baino gehiagok gogorarazi dit, gaztetan, era batera edo bestera, erdara hutsean ikasten zebilenean, eta baita lanean hasi berritan, ametsik biribilenetan ere ez zuela bere burua lan-bilera baten euskaraz edo beste lan-jardun batzuetan gure hizkuntzan imajinatzen. Hori egun errealitatea da. Hortaz pentsatzen dudanean aurrera jarraitzeko animua pizten zait.